

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Karlos III. Prestuaren Gurutzea jaso duten zazpi saridunek Nafarroarekin agertutako konpromisoa eta eskuzabaltasuna eskertu du

Humberto Bustinze, Javier Ochoa, Joxé Ulibarrena, Mirentxu Purroy, Julián Retegi, Nafarroako DYA eta Aralar Mendi Elkarteari "Nafarroa garatzen laguntzeko eta ospea lortzeko egindako ekarpenarengatik" banatutako sarien ekitaldiaren buru izan da

Larunbata, 2017.eko ekainak 17

Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria, Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzearen sari-banaketaren buru izan da gaur eguerdian. Hain zuzen honako hauei banatu die: Humberto Bustinze ikertzaile eta irakasleari; Javier Ochoa enologoari; Joxé Ulibarrena eskultore eta etnografoari, Mirentxu Purroy kazetariari, Julián Retegi

pilotariari, Nafarroako DYAr eta Artzai Egunaren antolatzailea den Aralar Mendi Elkarteari. Hauxe adierazi du Barkosek: "ardura, hobetzeko grina eta egunero hobetzeko jarrera nagusi diren ibilbide pertsonal eta kolektiboak eskaintzen dizkigute, eta horiei esker, guztion artean etorkizun hobia eraikitzen laguntzen dute".

Ekitaldia Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuaren klaustro isabelarrean egin dira eta besteak beste Manu Ayerdi, Miguel Laparra, Mikel Aranburu, María José Beaumont, Ana Olló, María Solana, Fernando Domínguez, Ana Herrera eta Isabel Elizalde kontseilariak eta Foru Komunitateko agintari eta alkate nagusiak bertaratu dira. Musika emanaldiak ere izan dira: In Tempore Abesbatza eta Ekko Ensemble taldea, Carlos Etxeberriak zuzenduta, ekitaldiaren hasieran Nafarroako ereserkia abestu dutenak; I offer you peace, Galesko Karl Jenkins konpositore garaikidearen Peacemakers lanarena, eta "Basoilarrak", Aita Donostiakoa, biak sari-banaketan zehar; eta Luminous Night of the soul (sorta), Norvegiako Ola Gjeilo konpositore garaikidearena, Barkos Lehendakariak ekitaldi amaieran esandakoaren ondoren.



Barkos Lehendakaria Karlos III.aren Gurutzea irabazi dutenekin.

[Saridunei](#) dominak entregatu dizkie eta [hitzaldi](#) labur batean eskerrak eman dituzte. Ondoren, Barkos Lehendakariak bertaratutakoei hitz egin die. Horrela, Barkos Lehendakariak Evreux etxeko Karlos III. "Errege Prestuaren" irudia gogoratu du eta bere pertsonaren eta erregealdiaren balioak nabarmendu ditu, hala nola elkarrizketa, esfortzuz egindako lana eta gizarte hobea lortzeko grina. Hori dela eta, "Karlos III.a Prestuaren izena aukeratu zen Nafarroaren gizarte-aurrerapenean eta ospean nabarmen lagundu duten pertsonen eta entitateen merituak publikoki goraiatzeko sarietarako".



Uxue Barkos hitz egiten.

Saridunen aintzatespena

Horrela, hauxe nabarmendu du **Humberto Bustincer**en kasuan: "ikerkuntzari emandako bultzada, aurrera egiteko grina nekaezina, fenomeno zientifiko berriak aurkitzeko eta muga geografikorik gabe zabaltzeko"; **Javier Ochoa**ren kasuan: "enologiaren esparruan duen ezagutza eta esperientzia aplikatzen izandako pertseberantzia miresten dugu", esan du. Hauxe esan du **Joxe Ulibarrenari** buruz: "artista bat da goitik behera, profil sortzaile apartarekin, bikain erabili duena Nafarroako Historiarekin duen konpromiso pertsonala nabarmentzeko". Horrez gain, **Mirentxu Purroyk** askatasunarekin, demokraziarekin eta aurrerapen sozial eta parte-hartzailearekin duen etengabeko konpromisoa nabarmen du, "komunikazioaren esparruan duen profesionaltasunaz harago".

DYari dagokionez hauxe esan du: "40 urtetan gehien behar den uneetan herritarrei lagundu die, arriskuak saihestuz eta zerbitzu paregabea emanez gizarteari oro har". Bereziki nabarmendu du "jarduera boluntarioaren, aniztasun funtzionala duten pertsonen integrazioaren eta kalitatezko kudeaketa eta prestakuntzaren eredia".

Halaber, bereziki goraiatu du Artzai Egunaren ekimena, "**Aralar Mendi Elkartearen** etengabeko esfortzuari esker, kalitatezko gaztak, artisautza, artzain-txakurren gaitasuna, motzaldia, folklorea eta artzain-kultura bateratzen direlako, Nafarroako mila urteko tradizio honek indarrean jarraitzen duela erakutsiz, oraingo eta etorkizuneko landa-ekonomiaren funtsezko euskarria delako".

Retegi II.ari buruz hauxe esan du: "bere izenak leku nabarmena du euskal pilotaren historia orokorrean", eta bere "kultura-jarduera ikusgarria" nabarmendu du, "pilotarien belaunaldi guztientzat eredia delako". "Bere pertsona eta palmaresa funtsezko tresna izan dira Nafarroako historian errotuta dagoen kirol hau sustatzeko", jarraitu du.

Barkos Lehendakariak, amaitzeko, eskerrak eman dizkie guztiei, beren "izaera ekintzaile, arduratsu eta aitzindariarengatik", eta "Nafarroarekin agertutako konpromiso eta eskuzabaltasunarengatik, zuen jardueran hain argi erakutsitakoa".

Ekitaldi osoa Navarra Televisión telebistatik emango da aurrez grabaturik datorren astelehenean, hilak 19, 16:00etan.

Karlos III.aren Gurutzea

Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzea kondekorazioa 1997. urtea sortu zuen Foru Gobernuak, Nafarroaren aurrerapenean eta Komunitatea kanpoan ezagutzera ematen nabarmen lagundu duten pertsonak eta erakundeak saritzeko, dagozkien jardueren esparru jakinetik. Foru dekretu bidez ematen da.

Sariak hain zuzen Karlos III. Noblearen izena hartu zuen. Nafarroako erregeen artean nabarmendu zen, bere izaera baketsu eta adiskidetzailarengatik, kulturaren eta artearen alde egindako ekimenengatik eta Europako gainerako gorteekin bake eta adiskidetasun harremanak ezartzeagatik.

Kondekorazioa gurutze esmaltatu bat da, eta Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetzen den

ezkozko errege-zigiluan agertzen den Karlos III. eseriaren irudia berregiten da, "Karolus regis navarre" legendaz inguratuta. Atzealdean Nafarroako ezkutua dago, "Nafarroako Foru Komunitatea" adierazpenaren eta "Cruz de Carlos III el Noble de Navarra" legendaren gainean.

Galería de fotos



Lehendakaria Humberto Bustincerekin.



Lehendakaria Javier Ochoarekin.



Lehendakaria Joxe Ulibarrena eta bere alaba Elurekin.



Lehendakaria Mirentxu Purroyekin.



Lehendakaria Nafarroako DYako lehendakari Mikel Corresekin.



Lehendakaria José Mari Ustarroz, Txomin Huarte eta Zuriñe Beltzarekin, Aralar Mendi Elkartekoak.



Lehendakaria Julián Retegirekin.



Lehendakaria eta Gobernuo kideak saridunekin.